

500 lagun joaten dira egunero anbulatoriora

Arnasa hartzeko arazoak ditu hernaniar askok; hala esan du anbulatorioko buruak.



Herritar bat anbulatorioan, harrerako mostradorean.

MOGIMENDU haundia dabil Hernaniko anbulatorioan. Denera, hogeita hamabost mediku eta erizainek atenditzen di-tuzte eguneroko bostehun *gaisoak*.

Kontsulta arruntak, odol-analisiak, pediatria, ginekologia eta larrialdi zerbitzuak dira Hernaniko anbulategian dauden zerbitzuak. Hortik aurrerako probak egiteko Gro-

seko anbulatoriora edo Gipuzkoako Hospitalera jo beharra dago, han baitaude zerbitzu espezializatuagoak.

ARNAS ARAZOAK

Hernanin gaixotasunik zabalduenak zein diren galdetuta, Karmen Blanco anbulatorioko buruak, arnasa hartzeko arazoak nabarmentzen direla adierazi du, arrazoirik ez badaki ere.

Zeinen eskutan

dago gure osasuna

-Kontsultak
8 mediku

-Gaixo kronikoak atenditzeko
8 herizain

-Ginekologia eta tokologia
Ginekologoa, emagina eta erizaina

-Pediatria
2 pediatra eta hiru herizain

-Larrialdiak
3 mediku, 3 herizain eta 3 zeladore

GRIPLEAREN KONTRAKO TXERTOIA IRAILEAN

Irailaren 18an hasiko dira gripearen kontrako txertoa jartzen. Aurten gainera, *tetanoa*-ren kontrakoa ere jarriko zaie helduei “ez baitaude ondo bakunatuta”.

Azarotik aurrera, berriz, eskolatan hasiko dira *tetanoa* eta *meningitis* C-ren aurkakak jartzen. □

Bonba abisua ‘Bankoa’n

Emakumezko batek hots egin zuen bonba batek eztanda egingo zuela esanez.



Urbietako kalea itxita egon zen ordubete inguruz.

ATZO goizeko 10:15 aldera, Urbietako kaleko *Bankoa*ko sukurtsalean bonba abisua izan zen. Langile batek esan digunez “emakumezko batek” bonba bat lehertuko zela adierazi zuen telefonoz.

DESALOJOA

Ertzaintzak *Bankoa* bera eta azpikaldean (Txirrita kalean) dagoen txirrindu denda desalojatu zituen, eta inguruan lanean ari ziren lorazainek ere lanari utzi zioten. Urbietako kalea itxita egon zen ordubete inguruz, ondoren guztia lehengora bueltatu zen. □

■ FUTBOLA

Lehendakaria aukeratuko du gaur CD Hernanik

Ezustekorik ezean Rikardo Ramos bakarrik aurkeztuko da. Patronatuarekin hitzartutakoa eta aurrekontua aztertuko dira.

OHIZKO eta ez ohizko bile-rak izango dituzte gaur CD Hernaniko bazkideek Sandiusterrin. 19:30etan memoria, aurrekontua eta Patronatuarekin adostutako hitzarmena aztertuko eta bozkatuko dira.

LEHENDAKARI AUKERAKETA

Lehenengo bilera bukatuta bigarrena hasiko da datozen lau urteetarako lehendakaria aukeratzeko. Hautagaiek bileran aurkeztu beharko dute beren burua eta proiektua. □

Bihar hasiko dira Portuko San Juan Txiki jaiak

12:00etan suziriek emango diete hasiera.



Portuko *Pedro Mari* tabernan tragoa hartzen. Zenbait hasi da motorrak berotzen.

BIHARKO goiz-arratsaldeak haurrentzako izango dira Portun. *Puzgarri haundiak*, *Giza futbolina*, *tren txikia*, *buruhaundiak*...Inulabarrean Tute txapelketa eta Sardina jana; gauean, dantzaldia Izotz taldearekin.

ASTEBURUA

Besteak beste, larunbatean 49 asto lasterketa jokatuko da. Berbena *Kristiñe eta Amaia* eta *Etzakit* taldeek emango dute; igandean berriz, *Laiotzek*, *Suzko* Zenaren aurretik. □


ERRIOGUARDA
E N E A
Iturriaga Kalea 10. Tel.: (943) 33 02 91
20120 HERNANI (Gipuzkoa)


Gráficas Hernani
Portu auzoa 6
Tel. eta Faxe 943 551 087
20120 HERNANI

HERNANI HIZKUNTZAK
(INGELESA)
MATRIKULA IREKITA
Irailak 1etik


943 33 11 08
(JOE edo ALAN)
KALE NAGUSIA 41, 1
20.120 HERNANI

ASTEAZKENEAN ITXI ZUTEN BERRITZEKO

Bihar zabalduko da Atsegindegiko aparkalekua

Eguraldia lagun, gaur pintatu eta biharko bukatua egongo da.



Atsegindegiko aparkalekuan brea botatzen asteazken goizean. Amortiguadoreek eskertuko dute detailea.

AZKENEAN ekin diote Atsegindegiko aparkalekuari. Duela hamar ziren hastekoak, berez; baina, makinak han eta hemen behar zituztela-eta, asteazkenean ekin zioten lanari. Brea lanak atzo ilunabarrerako ia

erabat bukatu zituzten.

Gaur, berriz, eguraldiak galerazten ez badu behintzat, aparkatzeko marrak pintatu, lehortzen utzi eta bihar goize-rako pronto, Udaltzaigoak *Kronikari* esan dionez.

BIDE GUZTIAK ZABALIK
Oraindik ere obretan ari dira Larramenditik Porturako bidean, Antziolan eta Osiñagan. Arreta gehiagoz ibili beharreko lekuak bai, baina, bide guztiak zabalik omen daude. □

OSIÑAGA AUZOA

Nekazal turismoa jarri nahi dute ‘Pardiola Haundi’ baserrian

HIRIGINTZA eta Go-bernu batzordeetan onartuta, Osiñagako *Pardiola Haundi* baserrian berrikuntzak egiteko baimena eman du udalak. Ana Arbiza Cortesen eskaria ontzat eman dute, beraz.

NEKAZAL TURISMOA

Nekazal turismoa jarri nahi dute baserrian; horretarako lehenik hasitako berritze lanak amaitu beharko dira, eta ondoren emango du udalak beharrezko baimena. □



Onddiren magalean dago Pardiola Haundi baserria.

■ HITZ BITAN

✓ ERRUGBIA

Errugbi taldeak datorren denboraldiaren aurkezpena egingo du gaur 19:30etan Zumitza jatetxean. Rafa, Josetxo, Joxe eta Bolik taldeen aurkezpena egingo dute; baita denboraldi berriko egin beharrak eta helburuak zehaztu ere. Ondoren, Juanito lehendakariak Klubaren berri emango du.

✓ PEÑA OTAÑO

Peña Otañoko bazkideek bilera dute gaur. Peña Otañon sukaldea berritzen hasiko dira laister eta hilabetez itxita egongo da. Gaur lanei buruzko azalpena eman eta zenbait puntu eztabaidatzeko bilera dute bazkideek eta zuzendaritzak. Zortzietan soziedadean bertan.

✓ ARRAUNA

Kontxarako sailkapen faseak jokatu dira gaur Donostian. Hernaniarrak entrenatzaile berriarekin prestatu dira, tirabirak medio Fermin Etxeberriak hartu baitu Eujenoren tokia. 21 traineruk parte hartuko dute 2 tandatan; hauetako 7 onenak eta *Arraunek* jokatu dute *Kontxa* datozen bi ingandetan

✓ ERREMONTEA

Bi doneztebear aurrez-aurre *Bingo Londres* finalean. Lizasok 35 eta 29 irabazi zion Zeberio Iñari finalaurrekoan; orain, Ezkurraren aurka neurtu beharko ditu indarrak. Finala larunbatean izango da, Galarreta pilotalekuan. 16:00etan hasiko da jaialdia.

✓ ESKU PELOTA

Esnaiek ezin *Teruelen*. Herenegun, Alonso eta biek 22 eta 13 galdu zuten Zabala eta Bazetaren aurka. Oiaga, eskuko mina tarteko, ez zen joan eta Odriozolak jokatu zuen bere partez. Esnaiek, gaur, Bentosa del Rio Almar herrian jokatu du *Salamancan*.

✓ GALDUTAKOAK

Artzai txakur gazte bat agertu da. Izenik gabeko koilare bat eta arkakusoentzako beste bat ditu jarrita; hanka batetik herren egiten du. Xehetasun gehiago nahi dituenak udaltzaingora deitu. ☎ 943 333288

✓ FERIA

Gaur feria izango da Urbieta kalean. Erropa, jaki eta gainerakoekin hegazti eta landareena ere bertan izango da azken hiru asteetan bezala. □

HERIOTZAK

Maria Nieves Valverde Valverde andrea

Asteartean hil zen 88 urte zituela.

Hileta Elizkizunak gaur 12:00etan Santa Maria Magdalena Egoitzako Kaperan

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943464622
943 335533
- Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- Egunez: Sagastiberri
Urbieta, 7
☎ 943552941
- Gaez: Diaz
Andoain. Nagusia, 19
☎ 943592057

IRAGARKI MERKEAK

- Emakume euskalduna behar da, umeez eta etxeko lanez arduratzeko. (Gizarte Segurantzaduna): Tel: 669.841731.